

> **KRONIKAK:** EHZ jaialdiak ekaitzari aurre egin eta Elkartasun Eguna egingo du gaur > **ARTEJIRA:** Donostia 2016 izendapenaren 3. urteurrena ospatzeko jaia izan da hiri osoan > **eta, gainera, ALBISTEAK, KRITIKAK, AGENDA...**



NATURA BERA BIDELAGUN

Testua: **Xole ARAMENDI** Argazkiak: **Sylvaine SENCRISTO**

Inguruan dutenari erreparatzen diote. Naturari. Izadia inspirazio iturri baino bidelagun dutela esan daiteke. Sormen prozesuaren objektu izateaz gain, beren ibilbide artistikoaren lekuko ere badira mendiak, itsasoa edo harriak. Beti presente. Biek irekitzen diote leihoa naturari. Javier Valverdek bere olio lanetan islatzen ditu bere unibertso propioa osatzen duten ezinezko paisaia amestuak. Marian Indak, berriz, argazki kameraren bat-batekotasuna baliatzen du zuhaitzetan edo harrietan txikitatik liluratu duen itsas hondoa irudikatzeko.

Senpereko Larraldea etxe ingurua kolore berdez margotutako paisaia lasaia da udako lehen egunean. Barrura sartu, lehen solairuko erakusgelen ateak zeharkatu eta zelaiaren berdeari okreak, horria, gorria, morea, urdina... gehitu zaizkio, paleta osatuz. Javier Valverderen zeruen urdina eta Marian Indaren itsasoen urdina.

Javier Valverdek (Donostia, 1956) euskal paisaia margotzen du. Betidanik erakarri du naturak. Gaztetan mihiseak eta margoak barruan sentitzen zuena espresatzeko bide ematen ziotela ikusi zuenetik.

Etxean bertan arnasten zen giro artistikoak ere izan zuen eragina. Horretan zalantzarik ez du. Umetatik ezagutu zituen aitaren lagun artistak etxean. Antonio aita margolaria, grabatzailea eta idazlea zen, *Ayalde* izenaz ezaguna. Antton anaia kantaria eta musikaria da, eta, Rosa arreba, berriz, margolaria.

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)